

UDALAREN OSOKO BILKURA

2009ko maiatzaren 28ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI jn.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRÍA GUTIERREZ and.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko maiatzaren hogeita zortziko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2009ko APIRILAREN 29ko OHIKO BILERAREN ETA 2009ko MAIATZAREN 12ko APARTEKO ETA PREMIAZKO BILERAREN AKTAK ONESTEA: Izenburuan aipatutako bileren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren Osoko Bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez onetsi ditu** 2009ko apirilaren 29ko ohiko bileraren eta 2009ko maiatzaren 12ko aparteko bileraren aktak.

2.- UDALAREN 2008ko EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINTZAKO GERAKINA ONETSI DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA. Ogasun,

Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2009ko apirilaren 28ko 57 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Aztertu da Alkatetzaren 2009-03-25eko 285. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

285/2009 DEKRETUA.

2008ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
Aintzatetsitako eskubide garbiak	39.872.210,39	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	37.118.162,20	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	2.229.394,64	
Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaiza	2.754.048,19	
Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaiza	-2.229.394,64	
AURREKONTU-EMAITZA		524.653,55
Finantzazioko desbideratze positiboak		502.284,33
Finantzazioko desbideratze negatiboak		0,00
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak		7.689.890,99
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		7.712.260,21

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA		
Ekitaldi-bukaeran kobratu gabeko zordunak		4.244.772,95
a) Aurtengo aurrekontua	3.397.497,51	
b) Itxitako aurrekontua	5.632.042,52	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	847.275,44	
d) Zalantza kobrantzako zordunak	5.632.042,52	
e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak	0,00	
Ekitaldi-bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		4.918.688,22
a) Aurtengo aurrekontua	2.902.078,79	
b) Itxitako aurrekontua	605.381,43	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	1.411.211,52	
d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak	16,48	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak		30.781.873,43
a) Ekitaldi-bukaeran kutxan dagoena	0,00	
b) Diruzaintzako soberakinak	266.263,00	
Diruzaintzako gerakina, guztira		29.841.694,36
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	4.244.772,95	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	4.918.688,22	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	30.781.873,43	
Eragindako diruzaintzako gerakina	8.826.052,92	
Gastu nagusien diruzaintzako gerakina	21.015.641,44	
Diruzaintzako gerakina, guztira		29.841.694,36

OHARRA: Kontuan hartu behar da diruzaintzako gerakina guztira 29.841.694,36 -koa bada ere, hurrengo ekitaldian zenbait gastu egiteko konpromisoa hartu dela jada, 21.554.681,69 -ko gastua egiteko konpromisoa, hain zuzen ere; horrenbestez, erabil daitekeen diruzaintzako gerakina 8.287.012,67 -koa da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira 2008ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Alkateak 2008ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen 285/2009 Dekretuaren jakinaren gainean eta horrekin ados geratuko da.
2. Onespen hau osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran jakinaraziko da.

EZTABAIDA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Ez gaude ez ados, ez desados; jakinaren gainean gaude, besterik ez.

Diruzaintzako gerakina hogeita hamar milioi euro ingurukoa da, eta horietatik hogeita bat eta erdi milioi, dagoeneko, ekitaldi honetarako konprometitu dira. Horri dagokionez, gogoko genuke Ogasun Batzordeak gainerako zortzi milioi eta erdiarekin zer egingo den jakinaraztea. Izan ere, egungo krisi-egoera kontuan hartuta, beharbada enplegua sortzeko eta familiei laguntzak emateko erabil liteke kopuru hori.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Aurki, Pinosoloko kiroldegiaren gainean aztertu ahalko dugu, eta, egiaztatuko dugunez, hura eraikitzeko behar den inbertsioak gerakinaren zati bat beharko du. Ondorioz, adierazi beharra dago beti utzi behar dela bitartekoren bat une zehatzetan likidezia bermatzeko.

Arrazoizkoa da konprometitu gabeko diruzaintzako gerakina zertarako erabiltzen den jakin nahi izatea, eta espero dugu hurrengo aste eta hileotan gai horren inguruan aztertu ahal izatea.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak 2008ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinaren gainean** geratu da udalaren osoko bilkura.

3.- SOINU-ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN 2008ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA ONETSI DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2009ko apirilaren 28ko 58 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Aztertu da Alkatetzaren 2009-03-25eko 283. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

283/2009 DEKRETUA.

Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
Aintzatetsitako eskubide garbiak	1.930.791,50	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	1.898.618,48	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaiza	32.173,02	
Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaiza	0,00	
AURREKONTU-EMAITZA	32.173,02	
Finantzazioko desbideratze positiboak	0,00	
Finantzazioko desbideratze negatiboak	0,00	
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak	12.125,23	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		44.298,25

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA		
Ekitaldi-bukaeran kobratu gabeko zordunak		401.244,05
a) Aurtengo aurrekontua	396.682,76	
b) Itxitako aurrekontua	7.021,74	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	4.561,29	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	7.021,74	
e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak	0,00	
Ekitaldi-bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		481.176,29
a) Aurtengo aurrekontua	41.695,38	
b) Itxitako aurrekontua	0,00	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	439.480,91	
d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak		128.643,73
a) Ekitaldi-bukaeran kutxan dagoena		
b) Diruzaintzako soberakinak		
Diruzaintzako gerakina, guztira		
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	401.244,05	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	481.176,29	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	128.643,73	
Eragindako diruzaintzako gerakina	0,00	
Gastu nagusien diruzaintzako gerakina		48.711,49
Diruzaintzako gerakina, guztira		48.711,49

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Alkateak 2008ko ekitaldiko udal aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen 283/2009 Dekretuaren jakinaren gainean eta horrekin ados geratuko da.
2. Onespen hau osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran jakinaraziko da.

(PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du)

Erakunde autonomo honen diruzaintzako gerakinarekin zer egiteko asmoa dagoen azaltzeko eskatu du.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak Soinu-Atadia Fundazio Publikoaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinaren gainean** geratu da Udalaren osoko bilkura.

4.- EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2008ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN AURREKONTU-EMAITZA ETA DIRUZAINZAKO GERAKINA ONETSI DITUEN ALKATETZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2009ko apirilaren 28ko 59 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Aztertu da Alkatezaren 2009-03-25eko 284. Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

284/2009 DEKRETUA.

Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina aztertu dira; hona hemen laburpena:

AURREKONTU-EMAITZA		
Aintzatetsitako eskubide garbiak	1.171.442,78	
Aintzatetsitako obligazio garbiak	1.181.593,08	
Ordaindu gabeko obligazioen saldoa gutxitzea	0,00	
Kobratu gabeko eskubideen saldoa gutxitzea	0,00	
Aurtengo aurrekontuaren aurrekontu-emaizta	-10.150,30	
Itxitako aurrekontuen aurrekontu-emaizta	0,00	
AURREKONTU-EMAITZA		-10.150,30
Finantzazioko desbideratze positiboak		0,00
Finantzazioko desbideratze negatiboak		0,00
Diruzaintzako gerakinekin finantzatutako gastuak		36.708,41
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		26.558,11

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EMAITZA

Ekitaldi-bukaeran kobratu gabeko zordunak		12.077,87
a) Aurtengo aurrekontua	12.077,87	
b) Itxitako aurrekontua	1.638,81	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketak	0,00	
d) Zalantzazko kobrantzako zordunak	1.638,81	
e) Aplikatu gabeko diru-sarrerak	0,00	
Ekitaldi-bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak		125.140,20
a) Aurtengo aurrekontua	14.979,85	
b) Itxitako aurrekontua	150,00	
c) Aurrekontutik kanpoko eragiketen hartzekodunak	110.010,35	
d) Diru-sarrerak itzultzeko hartzekodunak	0,00	
e) Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak		203.647,81
a) Ekitaldi-bukaeran kutxan dagoena	0,00	
b) Diruzaintzako soberakinak	0,00	56.006,68
Diruzaintzako gerakina, guztira		34.578,80
a) Bukaeran kobratu gabeko zordunak	12.077,87	
b) Bukaeran ordaindu gabeko hartzekodunak	125.140,20	
c) Bukaerako diruzaintzako fondo likidoak	203.647,81	
Eragindako diruzaintzako gerakina	0,00	
Gastu nagusien diruzaintzako gerakina	34.578,80	
Diruzaintzako gerakina, guztira		34.578,80

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 10eko 10/2003 Foru Arauaren 49. artikulua dio likidazioa Tokiko Erakundeko presidentek onetsi behar duela, eta osoko bilkurari jakinarazi.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Onetsi egingo dira Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina.
2. Onespen hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai-zerrendan sartuko da.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Alkateak Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen 284/08 Dekretuaren jakinaren gainean eta horrekin ados geratuko da.
2. Onespen hau osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileran jakinaraziko da.

(PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du)

Erakunde autonomo honen diruzaintzako gerakinarekin zer egiteko asmoa dagoen azaltzeko eskatu du.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Alkateak Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren aurrekontu-emaiza eta diruzaintzako gerakina onesteko eman duen Dekretuaren **jakinaren gainean** geratu da Udalaren osoko bilkura.

5.- 2008-12-31ko ONDASUNEN UDAL INBENTARIOA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2009ko maiatzaren 19ko 67 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Aztertu dira udal ondasunek 08.01.01 egunean zuten egoera, sarrera, irteera eta amortizazioak eta 2008.12.31 egunean Udaleko, Udal Euskaltegiko eta Soinu-Atadia Fundazio Publikoko ondasunek zuten azken saldoa. Horien laburpenak honako koadro hauetan zehaztu dira:

UDALAREN INBENTARIOA

EPIGRAFEA	HASIERAKO SALDOA 2008/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZATUA	AMAIERAKO SALDOA 2008/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri-bideak	100.893.469,46	10.950.840,73	-37.779,90	-620.767,36	111.185.762,93
Lurrak	10.010.235,62	821.773,10	-37.779,90	0,00	10.794.228,82
Eraikinak	35.676.157,08	7.657.561,12	0,00	-308.562,86	43.025.155,34
Higiezinetakoa hobekuntzak	8.198.346,42	319.007,81	0,00	-312.204,50	8.205.149,73
Instalazioak	100,00	520.000,00	0,00	0,00	520.100,00
Herri-bideak	47.008.630,34	1.632.498,70	0,00	0,00	48.641.129,04
2. Eskubide errealak	4.177.273,19	92.771,00	0,00	0,00	4.270.044,19
3. Higigarri historiko- artistikoak	734.043,74	0,00	0,00	0,00	734.043,74
4. Balio higigarriak	0,00	60.110,00	0,00	0,00	60.110,00
5. Ibilgailuak.	141.060,87	109.956,84	-65.319,06	-8.396,06	177.302,59
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	3.695.021,92	243.180,34	-64.333,62	-451.995,14	3.421.873,50
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	501.046,45	0,00	0,00	0,00	501.046,45
GUZTIRA	110.141.915,63	11.456.858,91	-167.432,58	-1.081.158,56	120.350.183,40

LURZORUAREN UDAL INBENTARIOAREN SEPARATA

EPIGRAFEA	HASIERAKO SALDOA	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZATUA	EPIGRAFEA, GUZTIRA
Ondasun higiezinak eta herri-bideak	14.924.245,55	0,00	0,00	-13.213,16	14.911.032,39
Eskubideak	3.786.552,23	92.771,00	0,00	0,00	3.879.323,23
GUZTIRA	18.710.797,78	92.771,00	0,00	-13.213,16	18.790.355,62

UDALAREN INBENTARIOAREN LABURPENA

EPIGRAFEAK	ONDARE OROKORRA	LURZORUAREN UDAL ONDAREA	AMAIERAKO SALDOA 2008/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri-bideak	96.274.730,54	14.911.032,39	111.185.762,93
2. Eskubide errealak	390.720,96	3.879.323,23	4.270.044,19
3. Higarri historiko-artistikoak	734.043,74		734.043,74
4. Balio higigarriak	60.110,00		60.110,00
5. Ibilgailuak.	177.302,59		177.302,59
6. Abereak	0,00		0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	3.421.873,50		3.421.873,50
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	501.046,45		501.046,45
GUZTIRA	101.559.827,78	18.790.355,62	120.350.183,40

EUSKARAREN ERAKUNDEA

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2008/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZATUA	AMAIERAKO SALDOA 2008/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri-bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lurrak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri-bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	137.089,85	7.839,36	-840,63	-2.868,63	141.219,95
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	137.089,85	7.839,36	-840,63	-2.868,63	141.219,95

SOINU-ATADIA FUNDAZIOA

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2008/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZATUA	AMAIERAKO SALDOA 2008/12/31
1. Ondasun higiezinak eta herri-bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lurrak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Herri-bideak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak.	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	277.878,03	16.959,11	0,00	-5.518,98	289.318,16
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	277.878,03	16.959,11	0,00	-5.518,98	289.318,16

Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onetsi zuen ekainaren 13ko 1.372/1986 Errege Dekretuaren 33. artikulua honakoa adierazten du: urtero egiaztatuko da inbentarioaren zuzenketa. Xedapen horren 34. artikulua dioenaren arabera, Inbentarioaren onespena, zuzenketa eta egiaztapena erabakitzeko eskumena duen organoa udalaren osoko bilkura izango da.

Luze aztertu dira 2008ko ekitaldian ondasun eta eskubideek izan dituzten era guztietako gorabeherak.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio 2008-12-31ko inbentarioa zuzentzeari; era berean, egoki iritzi dio 2008-12-31ko inbentarioa zuzentzeari buruzko gaia osoko bilkuraren hurrengo bilerako aztergaien zerrendan sartzeari.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez erabaki du** 2008-12-31ko Ondasunen Udal Inbentarioa onestea, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

6.- LANGILERIA KALEKO 88-90 ZENBAKIETAN DAGOEN LOKALA CORREOS Y TELEGRAFOS ERAKUNDE PUBLIKOARI DOAN LAGATZEARI BURUZKO ESPEDIENTEA:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2009ko maiatzaren 19ko 68 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Alkate jaunak 430/09 Dekretua eman du, eta honakoa dio, hitzez hitz:

430. DEKRETUA:

Lamiako-Txopoeta gunean Posta Bulegoa egon dadila bermatzeko beharra, erakunde publiko horrek zerbitzua auzo horretan bertan modu aktiboan egon gabe emateari uzteko erabakia hartu bazuen ere,

Lamiako-Txopoetako hirigintza-garapena dela eta, higiezin hori eraitsi egingo da; izan ere, onetsitako eta gunean indarrean dagoen hiri-plangintzaren aurreikuspenekin ez dator bat.

Nolanahi ere, udalak eta Correos-ek auzoan bulego baten bidez fisikoki posta-zerbitzua ematen jarraitzeko duten borondatea dela-eta, udalak lokal bat hartu du Langileria kaleko 88-90 zenbakietan eta Correos-ek zerbitzua emateko egokitzapenerako konpromisoa hartu du.

Hori guztia dela eta, hau sinatu duen alkateak Udalbatzari proposatu dio Langileria kaleko 88-90 zenbakietan hartutako lokala **CORREOS Y TELÉGRAFOS erakunde publikoari**, zerbitzua eman dezan doan lagatzea. Hori guztia, interes publikoarengatik, 2015. urtean amaitu beharreko aurreko hitzarmena ondorioz utzi gabe.

Ondasunak ondare-kalifikazioa duela kontuan hartuta, Ondasunei buruzko Araudiaren 109, 110 eta 111. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, Langileria kaleko 88-90 zenbakietako lokala **CORREOS Y TELÉGRAFOS erakunde publikoari** doan lagatzeko espedientea hasiko da.

Espediente honetan jasotakoa aztertu da, eta Ondasunei buruzko Araudiko 109 eta 110. artikuluetan xedatutakoaren arabera,

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Doan lagako zaio Langileria kaleko 88-90 zenbakietako lokala CORREOS Y TELÉGRAFOS erakunde publikoari, Lamiako auzoan posta-zerbitzua emateko, kutxazain automatikoa instalatzeko beharrezko azalerari kalte egin gabe.
2. Lagapena 30 urteko epeaz egingo da, eta isilbidez luzatuko dela ulertuko da, alderdietako batek sei hilabete lehenago, gutxienez, salatu ezean. Hala ere, arazoiren bat tarteko, lokala lagatzeko helburu izan den jarduera etenez gero, berehala bueltatuko da Leioako Udalaren eskuetara, eta horrek erabakiko du zein erabilera eman horiei.
3. Alegazioak aurkezteko 20 eguneko epea ezarriko da, eta lagapen-erabakia BAO n argitaratuko da; alegaziorik egonez gero, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honetan aztertuko dira horiek.
4. Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, Ondasunei buruzko Araudiaren 109.2. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.
5. Alkate jauna ahaldunduko da, Leioako Udalaren izen eta ordezkaritzan lagapen-hitzarmena sina dezan.
6. Hurrengo osoko bilkurarako gai-zerrendan lokala CORREOS Y TELÉGRAFOS erakunde publikoari lagatzeko onespenerari buruzko puntua sartuko da.

EZTABAIDA:

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Dagokion bileran, dagoeneko, gai honen gaineko informazioa eman zen; horren arrazoia duela bederatzi bat urte hasitako espedientea da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Langileria kaleko 88-90 zenbakietan dagoen lokala Correos y Telégrafos erakunde publikoari dohainik lagatzeko espedientea onestea, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

7.- BAKE-EPAILEA IZENDATZEKO PROZEDURA HASTEA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko maiatzaren 26ko 210 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena: Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2009ko maiatzaren 19an hartu zuen 63. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

2005eko uztailaren 28an udal honek, osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Manuel López Gaño jauna izendatu zuen Leioako bake-epaile.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak idazkia bidali du (sarrera-erregistroko zk.: 3702/09); horren bidez, berriro izendatzeko prozedura hasteko eskatu du, izan ere, izendapenerako lau urteko epea, dagoeneko, igaro da.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak egokitzat jo du aipatutako prozedura hastea.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** bake-epailea izendatzeko prozeduraren hasiera onestea, Barne Araubideko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2009-04-23tik 2009-05-20ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

EZTABAIDA:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena: Dekretu ugari izateak eragin du aztertzeke denbora luzea behar izana, Informazio Batzordeak eskatu ez digutena; hau da, normalean Informazio

Batzordeetan aztertzen diren gaien gaineko dekretuak eman dira, nahiz eta jakin badakigun alkatearen ahalmena dela berari esleitutako gaiak gisa horretako batzordeetan aztertzen diren ala ez erabakitzea, eta nahiz eta gobernu-taldearen filosofia ahalik eta partaidetzarik handiena izatea zela jakin.

Zentzu horretan, eta Informazio Batzordean aztertu ez zela kontuan hartuta, gogoko nuke Artazako Haurreskolari buruzko 375/09 Dekretuaren gaineko azalpenen bat ematea; izan ere, hori dagokion batzordean aztertutako gaia da, eta talde politikoko horretan bat etorri dira. Hala ere, hori horrela izanik ere, dekretua eman da, premiazko arrazoiez baliatuta.

Azken batean, gogoko genuke jakin zein aldaketa gertatuko den, legezko kontuetan sakondu gabe; izan ere, dekretuaren bidez jardun da, normalean baino sarriago.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Hezkuntza Batzordearen hurrengo bilera azalduko denari kalte egin gabe, esan beharra dut premia egin zela, Haurreskola abian jartzeko egokitzapen-obrak aurtengo udan egin behar direlako.

Jakin badakizue Eusko Jaurlaritzari eskaera egin eta eskaerari uko egin zitzaiola eta Eusko Jaurlaritzak berak akatsa onartu zuela. Hori dela eta, beste eskaera bat egiteko proposatu zen, eta, hori egin ondoren, horri aurre egiteko arazo juridikoak egon ziren; oraindik ere Sailaren lege- eta ekonomia-zerbitzuen txostenen bat falta da, Haurreskolari baieztatzeko ofiziala eman ahal izateko.

Artaza LHIn egin beharreko obren garrantzia kontuan hartuta, ebazpen ofiziala izan aurretik egiten hastea erabaki da; izan ere, ahoz jakinarazi digute txostenak aldekoak izango direla. Nolanahi ere, batzordearen hurrengo bilera batean, zehaztasunetan sakon daiteke.

Hala ere, PSE-EEko bozeramailearen gogoeta orokorra dela eta, nire ustez, administrazio-tramitazioak baino ez diren dekretu ugari dago eta horiek izaera politikoa dutenak dira, batzordeetan jakinarazten direnak; baina gobernu-taldeak argi dauka partaidetza sustatzen duen jarduteko modu horrek ezin diola administrazio-arloko bizkortasunari kalte egin.

Edonola ere, eta Haurreskolaren gaiari eutsiz, ezin da ahaztu obren kontratazioa Alkatetzaren eskumenekoa dela.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sainz jaunak esandakoaren laburpena:

Batzordean Haurreskolaren gainean zeuden berrien berri emateko konpromisoa hartu dugu eta bere horretan diraugu oraindik ere; kontua da ez dagoela berri ofizialik.

PSE-EEko ordezkariak adierazi duen dekretua dela eta, horrek ez du zerikusirik handirik Haurreskolaren zerbitzuarekin; izan ere, obren kontratazioaren tramitazioa aurreratu egin da, Eusko Jaurlaritzaren erabakia irmoa denean, zerbitzua ahalik eta lasterren hasi ahal izateko, besterik ez.

PSE-EEko Nekane Jiménez Fernandez andreak esandakoaren laburpena:

Kultur Leioari ikasturtea eta dantza-ikuskitzuna aurkezteko baimena eman dion 421/09 Dekretua aipatu du; doako lagapena egin da, nahiz eta aretoko eta garbiketarako laguntza teknikoaren kontzeptuan egindako gastua kultura-zentroaren partiden kontura ezartzen dela adierazi den. Zein irizpide jarraitu den galdetu du.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Ezin dut sinatu ditudan dekretu guztien edukia gogora ekarri; hori dela eta, horretarako astia emateko eskatu nahi dizut, hurrengo Kultura Batzordean horren

gaineko informazioa eman ahal izateko.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

9.- PRESAZKO MOZIOAK:

199.- PLAN OROKORRA ZATI BATEAN ALDATZEA 18. ARLOAN. Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko maiatzaren 5eko 199 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena, hitzez hitz:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2009ko apirilaren 28an hartu zuen 41 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, Administrazioarekiko Auzietako Salaren 55/2003 zenbakiko epaiaren bidez, hitzez hitz honakoa dioen 369/00 errekurtsori buruzko epaia eman zuen:

“Epaitza hau eman dugu: Bilbao Bizkaia Kutzaren ordezkariak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa zati batean onartu dela kontuan hartuta, Leioako Plan Orokorreko 18. arloko lurzorua (ekainaren 7ko 360/99 Foru Arauaren bidez onetsia) lurzoru urbanizagarritzat sailkatu behar dela adierazi behar dugu. Horretarako, aipatutako arauaren zehaztapen guztiak - aurreko erabakiaren kontrakoak direnak- baliogabetu behar dira, eta kontrako asmoak gaitzetsiko dira, eta ez da ezarpen berezirik egingo eragindako kostuen gainean”.

Ur Zikinen Araztegia eta erabilera mistoko arloa ezartzearen ondoriozko 18. arloaren antolamendua oraindik zehaztu ez dela aintzat hartuta eta epaia betetzeko, izen handiko hirigintzako estudio baten kargu utzi da espediente egokia prestatzea. Zenbatekoa: 4.640 € (BEZa barne).

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordea zati bateko aldatetari buruzko espedientearen jakinaren gainean geratu da. Horren edukia honakoa da: lurzorua berriro sailkatu eta epaiaren aurkako zehaztapenak baliogabetu. Horretarako, espedientea jendaurrean jartzeko informazio-tramitea hasteko irizpena eman da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak ezarri bezala.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du.**

PREMIAZKO MOZIOAREN BOZKETA

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak gai horren **premia onestea** erabaki du, eta jarraian gai horri buruzko eztabaida eta bozketa egin da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** 18 arloan Plan Orokorren zati bateko aldaketa onestea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala

10.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Galdera:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:
Bozera maileen Batzordean aztertutako gai baten gainean aritu da, 2009ko martxoaren 31ko Tokiko Gobernu Batzarrak aztertutako gai baten gainean, Lamiakoko Araztegiaren gaineko informazio-kanpainari buruzkoa; horretarako, hamabi mila euro inguruko partida dago. Oraindik ez da gai horren gaineko erantzunik eman.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Informazio-kanpaina baterako aurrekontu-gordailuaz ari zara; baina araztegiaren gaineko informazio ofizialik ez dugunez, uste dugu ez dela aurreikuspen horren araberrako informazio-kanpainarik egin behar.

Espedientearen tramitazioan Kantauriko Ur Konfederazioak eta Ingurumen Ministerioak esku hartu dute, eta esan behar dizuet, Gabonak baino lehen, Ministerioko Ur Zuzendaritzarekin harremanetan izan ginela, eta gaia aztertzeko eta udalerrientzat interesekoak diren proposamenak egiteko bilera eskatu geniel. Idatziz erantzungo zigutela esan ziguten, eta horrela bete zuten hitza, 2009ko otsailaren 9ko idazkiaren bidez. Harrezkerotik, hogeiei baino gehiago egin dugu, eta pasa den astean lortu nuen, azkenean, Uren zuzendari nagusiarekin eta Ur Konfederazioaren buruarekin hitz egitea.

Izandako elkarrizketen bidez, ezin izan dut ondorio argirik atera, nahiz eta Konfederazioaren buruari honako honen gainean arduratuta ikusi nuen: Ministerioa udalaren eskaerei erantzuten ari da, araztegia ahalik eta txikiena eta estalia izateko, eta legezko ingurumen-jarduna garatu eta auzorako ekonomia-jarduerak, eta abar ezarri ahal izateko.

Laburbilduz, Konfederazioaren buruarekin izandako elkarrizketa egokia izan da, bai eta horren gogoia ere; aldiz, Sustapen Ministerioko Ur Zuzendaritza Nagusiarekiko harremana zailagoa da.

Egunotan, Ur Konfederazioaren buruarekin bilera egiteko asmoa dut, eta uda arte aldeko berriren bat izatea espero dut; baina, administrazio-tramitazioaren aldetik, ez da hasi. Ondorioz, ez da jendaurrean egoteko tramitaziorik egin, eta jakina da gai honen gainean hainbat ikuspuntu egongo dela: ekologistena eta udalarena ez dira bat etorriko, eta abar.

Hau da, badirudi ez dela une egokia informaziorako hamabi mila euroko partida gai horretarako erabiltzeko, zein egoeratan gauden ikusita.

Eta arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,